

## **BEC-EN ANTOLATZEN DEN UMEEN GABONETAKO PARKEAK PRESTAKUNTZA ETA DIDAKTIKARA BIDERATUTAKO ESPAZIO BAT IZANGO DU, BASOEN INGURUMEN-GARRANTZIA ERAKUSTEKO ETA BASOAREN ETA EGURRAREN SEKTOREAK EGITEN DUEN KUDEAKETA AZALTZEKO**

***Euskadiko basoaren eta egurraren sektoreak bere egin du aurtengo  
UGPren leloa, “dibertsioa balioekin” sustatzeko.***

***Bisitariak tokiko egurraz egindako joko didaktikoez gozatu ahal izango dute***

**Bilbo, 2019ko abenduaren 17a.** Bilbao Exhibition Centren antolatutako Umeen Gabonetako Parkea bisitatzen duten umeei espazio didaktiko eta ludiko bat izango dute bihartik urtarrilaren 5era bitartean. Espazio horretan, Euskadin hazitako basoek duten garrantzia ezagutuko dute, eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta airearen kalitatea hobetzeko baso horiek egiten duten ekarpena ikusiko dute.

Informazio-panelak egin dira, txikienei zuzendutako hizkera erabilita, Euskadiko basoaren eta egurraren sektorearen errealitatearen berri izan dezaten, eta plastikoak eta petroliotik eratorritako beste produktu batzuk ordeztuko dituzten produktu berriak garatzeko lanean duen zeregina ezagutu dezaten. Kalaka enpresak tokiko egurraz eta artisau eran egindako jokiez gozatu ahal izango dute standera bertaritzen diren umeei.

Baskegurrek, Euskadiko Egurraren Elkarteak, enpresa eta elkarte hauekin lankidetzan jarri du martxan ekimena: Landatur, nekazaritzako prestakuntzan eta dibulgazioan espezializatutako enpresa; Bizkaiko Forestalisten Elkarteak, lurraldeko basoen jabeak barne hartzen dituen elkarteak; eta Mendatako Udala, bereziki sentsibilizatuta baitago basozaintzaren garrantzia ezagutarazteko behararekin, gure landa-eremuetan gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-aberastasuna sortzeko. Bizkaiko udalerrri horren lurraldearen % 85en zuhaitzak daude, eta baso horietako asko inguruko baserriarren jabetzakoak dira; urte luzez mantendu eta zaindu dituzte basoak eta gure ingurua.

“Dibertsioa balioekin” da Bizkaiko UGPk aukeratutako leloa edizio honetarako. Baskegurrek eta gainerako erakunde lankideek ekimen honen alde egindako apustuak bere egiten du helburu hori, txikienei lehen sektoreko jarduera honek duen garrantzia eta ekosistemari egiten dion ekarpena erakusteko.

Erakusketari esker, UGPko bisitari guztiek Euskadiko basoaren eta egurraren sektorearen garrantzia ezagutuko dute: Euskadiko lurraldearen % 55 zuhaitzak dira, eta, basoaren kudeaketa arduratsuari esker, 18.000 lanpostu sortzen dira; horrez gain, sektorea BPGd-ren % 1,53 da Euskal Autonomia Erkidegoan.

200.000 pertsona baino gehiago etorri ziren aurreko edizioan Umeen Gabonetako Parkera, BECen 3. eta 5. pabiloietan eskaintzen ziren proposamenez gozatzera. Bizkaiko UGP ezinbesteko hitzordua bihurtu da txikieneztat Gabonetako jaietan.